

Hernani

Eskuizkribuan ezabatuak izan ziren 5-8 eta 15-22 bertsoak ez ziren lehenengo argitalpenean azaldu.


“Doan indarra” Urrikalgarriak lanean azaltzen da. Politika bihurtu da, “ez dago lehen bezalako matxinadarik”. Altxamendu oro gaiztoa da, atzerakada pauso bortiz oro mutina da; atzera egitea gizatasunaren aurkako bidea da. Matxinada, egiaren sumindurazko haserrealdia da, matxinadak mugitzen dituen zoruak eskubidearen txinparta dira.

1827 A. Deveria. Victor Hugo 1827an. MVH © RMN-Bultoz



1827

Victor Hugo. “Ez diezadatelá drama modernoari buruz hitz egin. MVH © PMVP



“Doan indar bat naiz...”. Olerkiaren zati hau eta hau bezain ezagunak diren beste batzuk gorde egin ditugu, eta askotan Victor Hugo berberari aplikatu dizkiogu.

Haren aipamenak askotan lehenengo antzezpenen aurretik edo hauen bitartean moztuak izan badira ere, jende guztiak ulertu dituela sentitzen du.

“Aragoi! Galizia! Extremadurako mendiak!
—O, zorigaitza dakarkiot inguratzen nauen orori!
Zure semerik onenak kendu nizkizun urriki gabe
Nire alde eraman nituen borrokara, eta horra hilik!
Espainia zangarraren semerik zangarrenak ziren.
Hilik! Denak dira mendian erori,
Denak bizkarrez etzanak, prestuki, Jainko aitzinean,
Eta begiak irekiko balituzte, zeru urdina ikusiko!
Horra zer egiten dudan nik ni ezkontzen nauen oroz!
Jeloskor bihurtuko zaituen patua ote? Doña Sol,
Hartzazu dukea, hartzazu infernua, hartzazu erregea!
Ongi da. Ni ez beste guztia duzu ni baino baliosagoa!
Ez daukat nitaz oroituko den ezein lagunik,
Orok nau uzten, garaia da hel dadin zure aldia,
Bakarrik egon beharra baitut. Zoaz nire kutsutik
urrun.
Ez dezazula erlijio bat egin maitatzeaz!
O, zeure onez, zoaz! – Menturaz usteko duzu
Besteak bezalako gizona naizela,
Amets duen hartara zuzen doan izaki zuhur bat.
Okar zaude guztiz. Abian doan indarra naiz!
Misterio ilunen eragile gor eta itsua nauzu!
Nora noan? Ez dakit. Baina arnas oldartsu batek
Nau bultza egiten, zentzugabeko patu batek.
Amiltzen naiz, amiltzen naiz, eta ez naiz gelditzen.
Noizbait, arnasesturik, ausartzen banaiz burua
itzultzen,
Ahots batek diost: Aitzina! Eta sakona da amildegia,
Eta gorritua dakusat haren hondoa odolez edo garrez!
Halarik ere, nire lasterka zarpailaren ezker-eskuin
Dena da hausten, dena hiltzen. Dohakabea, uki
nazana!
O, zoaz! Albora zaitetz nire ezinbesteko ibilbidetik,
Ondikotz! Nahi gabetarik ere, nik min emanen
nizuke!”

Hernani, III. ekitaldia, 4. agerraldia.